



## DELITUEN BIKTIMEI HASIERAN ESKUBIDEAK JAKINARAZTEKO EGINBIDEA

Delitu baten **BIKTIMA** izan bazara, jakinarazten dizugu jarraian zerrendatuko diren eskubide orokorrak dituzula Delituaren Biktimaren Estatutuaren arabera (4/2015 Legea), estatutu hori garatzen duen Erregelamenduaren arabera (1109/2015 Errege Dekretua) eta Prozedura Kriminalaren Legearen arabera; horrez gain, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan eta Bulego Judizialean balia ditzakezun beste eskubide batzuen berri ere ematen dizugu.

### 1. ESKUBIDE HAUEK DITUZU:

- Zeuk aukeratutako pertsona batekin egoteko eskubidea agintariekin eta funtzionarioekin lehen aldiz harremanetan jartzen zaren unetik, eta bulegoetan arreta jasotzekoa, biktimen eta haien senitartekoen eta susmagarriaren edo akusatua arteko zuzeneko kontaktua aihestuz.
- Egitateak salatzeko eta salaketaren kopia bat (behar bezala ziurtatua) jasotzeko eskubidea, eta, hala badagokio, salaketa jartzeko prozedurari buruzko informazioa jasotzekoa.
- Ikerketaren ardura duten agintariei froga-elementuak emateko eskubidea.
- Doako hizkuntza-laguntza izateko eta aurkeztutako salaketaren kopia itzulita jasotzeko eskubidea, baldin eta salaketa aurkezten duzun tokiko hizkuntza ofizialik ulertzen edo hitz egiten ez baduzu. Salbuespen gisa, salaketaren idatzizko itzulpenaren ordezkariaren ahozko laburpena egin ahal izango zaizu.
- Aholkularitza eta defentsa juridikoa eskuratzeko prozeduraren berri izateko eskubidea eta, hala badagokio, horiek doan jaso ahal izateko baldintzak jakitekoa.
- Atzeman zaizkizun eta itzul dakizkizukeen zure jabetzako ondasunak lehenbailehen berreskuratzeko eskubidea, Prozedura Kriminalaren 284. eta 334. artikuluetan eta Biktimaren Estatutuan xedatutakoaren arabera, prozesua behar bezala garatzeko oztopo ez bada behintzat.

### 2. BIKTIMEN ARRETARAKO ZERBITZUAREN (BAZ) BITARTEZ BALIA DITZAKEZUN ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA :

- Arlo juridikoko, psikologikoko eta sozialeko laguntza edo/eta arreta koordinatuko neurriak: laguntza emozionala, ostatu segurua, laguntza medikoa, legez kanpoko laguntza ekonomikoak, prozesu guztian laguntza jasotzea, etab.
- Zure beharrezko buruzko aholkularitza, bigarren biktimizazioa eragotziko duten babes-neurriak aztertzea eta aplikatzeko proposatzea: biktimak eta egitateen ustezko egileak elkar ez ikusteko neurriak, epailetan eta auzibide penaletan laguntzea, behar baduzu, eta abar.
- Zer kalte-ordain jasotzeko eskubidea duzun eta, hala badagokio, haiek eskatzeko prozedura.
- Erabilgarri dauden interpretazio- eta itzulpen-zerbitzuak, eta komunikaziorako beharrezkoak diren laguntzak.
- Bizilekua atzerrian baduzu, zure eskubideak baliatzeko prozedura zein den jakitea.
- Zure eskubideen aurkako deritzezun ebazpenen kontra zer errekurtso jar ditzakezun.
- Justizia erreparatiboko zerbitzuak, legez posible den kasuetan: Bitartekaritzako prozedura da, biktimaren erreparazio material eta morala helburu duena; biktimaren adostasunez egiten da, arau-hausleak egitateak alde aurretik aitortuta, eta haren erantzukizuna sustatuta; biktimarentzat arriskurik sor badaiteke, baztertuta geratzen da zerbitzu hori.
- Zer kasutan lor dezakezun gastu judizialak itzultzea, eta, hala badagokio, hori eskatzeko prozedura zein den.
- Zigor-arloko auziari buruzko ebazpen, jakinarazpen eta informazioen berri jasotzeko eskatzea.

### 3. BULEGO JUDIZIALEAN (Epaitegia) BALIA DITZAKEZUN ESKUBIDEAK:

Aurreko puntuan xedatutako azken lau eskubideak Bulego Judizialean ere baliatu ahal izango dira. Hala ere, halakoak baliatzeko, prozedura judizial bat hasi behar da.



#### 4. LEGEZKO OHARTARAZPENAK:

Jakinarazten zaizu salaketa faltsua aurkezteak edo delituaren itxura egiteak zigor-erantzukizuna dakarrela berekin, Zigor Kodeari buruzko 10/1995 Lege Organikoaren 456. eta 457. artikuluetan jasota dagoenez:

*456. art. Norbaitzuek pertsona bati egitate faltsuak egozten badizkiote, faltsuak direla jakinda edo egia ausartegi mespretxatuz, eta egitateok, egiazkoak izanez gero, arau-hauste penal izango liratekeen horietakoak badira, eta egozpen hori egitateok ikertzeko betebeharra duen funtzionario judizialaren edo administrazioko funtzionarioen aurrean egiten bada.*

*457. art. Norbaitek, aurreko artikuluan adierazitako funtzionarioetatik baten aurrean, arau-hauste penal baten ondorioz erantzule edo biktima dela itxura egiten badu, edota gertatu gabeko arau-hauste penalarri buruzko salaketa egiten badu, eta prozesuko jarduna sorrarazten badu.*

#### 5. INFORMAZIO OSAGARRIA:

##### **Biktimei laguntzeko EAEko bulegoak:**

Arreta-orduak: Goizez: Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 15:00etara.  
Arratsaldez: Astearte eta asteazkenetan, 16:30etik 19:00etara.  
Uztailen eta abuztuan: 8:00etatik 15:00etara.

##### **Araba/Álava**

Gasteizko Justizia Jauregia.  
Gasteiz hiribidea 18  
01008 Vitoria-Gasteiz  
Telefonoak: 945004895  
900180414 (doakoa)

##### **Bizkaia**

Bilboko Justizia Jauregia.  
Ibáñez de Bilbao kalea 3-5  
48001 Bilbao  
Telefonoak: 944016487  
900400028 (doakoa)

Barakaldoko Justizia Jauregia.  
Bide Onera Plaza kalea z.g.  
48901 Barakaldo  
Telefonoak: 944001031  
900400028 (doakoa)

##### **Gipuzkoa**

Donostiako Justizia Jauregia - Donostia.  
Kalkutako Teresa plaza 1  
20012 Donostia  
Telefonoak: 943000768  
900100928 (doakoa)